


BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



ROL AGENTZIA. FRANTZIAKO LIBURUTEGI NAZIONALA.

MAULEKO PILOTARIAK, 1927AN PARISEN

Mauleko Sport Athletique Mauleonnais kluba 1905ean jaio zen, eta bere atal garrantzitsuenen artean errugbia eta pilota zeuden. Artikuluak erakusten duen argazkian Zuberoako hiru pilotari agertzen dira, 1927ko uztailaren 10ean Pariseko frontoian. Irudiaren erdian, Laurent d'Andurain mauletarra dago, 1920ko hamarkadan joko garbiko hainbat txapelketa irabazi zituenena, eta baita 1929an Paueko Kopa ere. Sport Athletique Mauleonnais erreboteko txapeladuna izan zen 1925 eta 1929 bitartean. Laurent d'Andurainekin batera, talde zuberotarreko Agirre eta Gary bere kideak ageri dira.